

Hernanik kronika

TOKIKOM 2010eko martxoaren 23a, asteartea ::: 3.229 zka. ::: www.kronika.net



❖ KONTZERTUAK - MUSIKA ESKOLAK 25 URTE

Bi kontzertu asteburuan, musika modernoa eta klasikoa

Musika eskola sortu zela 25 urte dira aurten, eta urteurreneko ekitaldiak egiten ari dira. Ostiral eta larunbatean, kontzertu moderno eta klasikoa izango dira Milagrosan, 19:30etan.

MUSIKA aukera izango da asteburuan Hernanin. Musika modernoa eta musika klasikoa eskainiko dute Hernaniko musika eskolako musikariek, 2 egunetan. Hernaniko musika eskolak 25 urteurrena du aurten. Horren harira, kontzertu eta ekitaldi asko antolatu dituzte, eta martxoan hiru kontzertu izan dira, besteak beste.

Bestalde, Musika Bandak ere kontzertua du, igandean.

Musika mota bat baino gehiago

Ostiralean, musika modernoa izango da, 19:30etan Milagrosan. Bertan izango dira protagonista: Roberto Pacheco, Judith Montero, Ixaso Pacheco, Maddi Lizarraga, Satxa Sorriazu, Iñaki Estrada, Javi Morcillo eta Jorge Pacheco.

Larunbatean, musika klasikoa izango da aukeran, 19:30etan Milagrosan, Marta Zuñiga eta Xabier Aizpurua-ren eskutik.



Tolosako Banda izan zen Hernanin martxoaren 13an, Hernaniko Musika Bandak gonbidatuta.

Igandean Musika Banda

Bestalde, urteurrenekoa ez den beste kontzertu bat ere bada asteburuan. Igandean, eguerdiko 13:00ean, Hernaniko Udal Musika Banda entzuteko aukera izango da. ||

Hernaniko Udal Musika Bandak joko du igandean, martxoak 28 Udaletxeko arkupeetan, 13:00etan. Joan den martxoaren 13an Tolosako Musika Bandak kontzertu ederra eskaini zuten, igande honetan hernaniarrek hartuko dute erreleboa. ||

❖ ATEZ ATEKO HONDAKIN BILKETA

Kuboak banatuko dituzte gaurtik aurrera

Kuboak Kardaberaz 25eko bulegoan jaso behar dira, eta familiako bi banatuko dituzte.

HERNANIKO familia bakoitzak gaurtik aurrera hartu ditzake beraiei dagozkien bi kubo marroiak, hau da, Atez Ateko hondakin bilketan gai organikoa biltzeko erabiliko

diren bi kuboak.

Kuboak Atez Ateko bulegoan banatuko dira, Kardaberaz kaleko 25garren zenbakian, goizeko 10:30etatik aurrera.

Banaketa auzoz auzo

Bulegoan banatzeaz gain, auzoz auzo ere banatuko dituzte kuboak. Gaur ondorengo auzoetan banatuko dituzte: Zikuñaga-Akarregin (Zikuña-

gako eskola zaharrea), Floridan (Gabriel Zelaya ikastetxean), Portun (Elizatxo ikastolan), Antziola-Sagastialden (Haur eskolan) eta Lizeaga-Sta. Barbaran (Sandiusterrin). ||

❖ EUSKARA BATZORDEA

Udalekuak eta Chillida-Lekura bisitak gaur batzordean

Hezkuntza, Kultura eta Euskara batzordea izango da gaur Udaletxeko areto nagusian, arratsaldeko 18:30etan hasita. Bertan, besteak beste, hizketagai izango dituzte Hernaniko ikasleek Chillida-Leku museora egiten dituzten bisitaldiak, eta uztaileko udalekuen informazioa. ||

❖ GOBERNU BATZORDEA

Taberna-jatetxe eta establezimendu komertzialentzako edukiontzia gaur batzordean

Tokiko Gobernu batzordea izango da gaur, 14:00etan, Alkatetzan. Bertan, besteak beste, aztergai izango dute Atez Ateko hondakin bilketa egiteko taberna-jatetxe eta establezimendu komertzialek behar harko dituzten edukiontzioak. ||

❖ ARANTZAZURA IBILIA

Autobusean igotzeko izena eman behar da Parrokian

Arantzazura ibilaldia izango da larunbatean, aurten *Hitzarenak eta hitzekoak* lemapean. Oinez igotzeko zailtasunak dituztenentzat autobusak antolatu dituzte. Autobusean igotzeko alde zurretik eman behar da izena Parrokian, bihar, 19:30etatik 20:30etara. Autobusak 13 euro balio du. ||

❖ ERAKUSKETAK

Julita Calvoren erakusketa ikusteko azken eguna

Gaur izango da Julita Calvoren Biterin jarrita duen erakusketa ikusteko azken aukera; 18:00etatik 20:45etara. ||

TELEMAR

Elkano kalea 13 - Nagusia 7 - HERNANI -

MARTXOAREN 22AN HERNANIN TB ANALOGIKOAREN APAGOIA!



Telefonikako banatzaile ofiziala

LTD - TDT-ko
Laguntza eta Zerbitzu tekniko
propioa eta espezializatua

Aste honetan
arratsaldean 21:00ak arte irekita



TELEBISTAK LTDREKIN (TDT) 195€TIK AURRERA

LTD - TDT Sintonizatzaileak, punta puntako markak



t d t Televisión digital Terrestre

Etxean instalatuko dizugu edo aurretik instalatuta entregatuko dizugu

TELEFONOAK ● **Taxiak:** 943 550093 ● **Udaltzaingoa:** 943 248900 ● **DYA:** 943 464622 ● **Autobusak:** Herri barrukoa: 943 550548 – 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
● **Anbulatorioa:** 943 006666 ● **Jokalari anonimoak:** 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak:** 943 331103
● **FARMAZIAK** ● **Eguztegia:** **Bulnes** Etxeberri 1 - 943 557738 ● **Gauz:** **Chucua** Kardaberaz 48 - 943 551793

EGURALDIA
GAUR Tenperaturak gora egingo du, eta 20°C-ren muga gaindituko du. Goiza eguzkitsua izango da eta arratsaldean lainoek zerua estaliko dute.

BIHAR Hego haizeak indarrez joko du eta tenperaturak 20°C-ren bueltan jarraituko du. Laino ugari izango dira eta zertxobai busti dezake.

IGERIKETA - ESPAINIAKO TXAPELKETA

Maitane Damborena azkarrena, Pontevedrako uretan

Damborenak irabazi egin zuen 50 metro bizkar estiloan, Espainiako gazteen txapelketan. 200 metro bizkar estiloan hirugarren izan zen.

ASTEBURU honetan, hernaniar baten izena ozen entzun da Pontevedrako uretan. Espainiako txapelketak jokatu dira Galizian, eta Maitane Damborenak irabazi egin du 50 metro bizkar estiloan. Gazteen txapelketa izan da, eta hernaniarrak esperotako emaitzak lortu ditu.

Damborenak bere marka onena egin zuen, gainera, finalean: 30,62 segundu.

Bizkar estiloan onenetan

Erakustaldi ederrak ematen ari da hernaniarra jokatzeko



Maitane Damborena.

ari den proba guztietan. Bizkar estiloan (atzeraka) lortu ditu markarik onenak, eta onenen artean dabil, aste-buruz asteburu.

Pontevedran, 50 metro bizkar estiloan lehendabizikoa izan zen; 200 metro bizkar estiloan hirugarren; eta 100 metro bizkar estiloan laugarren.

Martxo hasieran Euskadiko txapelketak jokatu ziren Getxon, eta han hiru probak irabazi zituen Oartzungo Oarsoaldea taldean ari den hernaniarrak. ||

Jasota Bezala

✓ Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA zenbakia eta telefonoa ✓ Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira ✓ Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu ✓ Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak.

"Ez nazala ezerk, zu gandik urrundu"

Ez dago urruti. Oinez, 10 minutu, plazatik. Terrenoak, futbol zelai-erdia. Atea zeharkatu, eta... bidai luze bat egin dugu, antza; eta, nonbait, oihan magiko batean gaude: palmondo, mizpira japoniarrak, Birmaniako garo, Himalaiako zedro... Putzu bat ere bada: arrain-gorri sinpatikoak; eta, inoiz, igel despitu bat, dzanga uretara salto egiteko prest. Parke Botanikoan zehar noa, ttappa-ttappa.

Urtaro bakoitzak bere kolorez ziprizzintzen du parkea: atzo, sanjose lorez. Nik oso gustuko dut Ginkgo Bilobak, urrian, hartzen duen urregorri kolorea, eta Herkules arbolak erakusten duen...

Polifonikoa ere bada parkea: han entzungo diozu, txantxan, txantxangorriari; edo txor-txor, zozoari; edo txio-txio... edo mee, larreko ardiari; edo irrintzi, mendiko behorriari; edo kukurruku, baserriko oilarrari... edo angu, titia hartzen ari den jaioberriari... Hego-haizeak ere bere musika (pir-pir) aterako die zuhaitzei, dardara eragitean. Udan, zumburruntxoak ere entzungo diezu eltxoei...

Kulinarioa ere baduzu parkea. Zuhaitz-hostoak bi eskuez igurtzi, eta hainbat zapore dastatuko duzu. Ereinotza usaindu, eta plater txinatarrak dastatuko duzu. Izeia gorria usaindu, eta perfume garestia adituko... Mexikoko altzifrea usaindu, eta urtetan barriketan

ondutako ardoa...

Sanatorioa ere baduzu... Pinu tantaia dituzu, errenkan. Haien azpian paseatuz, birrikak berriro egingo zaizkizu...

Parkean baduzu, gainera, toki bat energetikoa. Eserleku bat. Bankua, egurrezkoa... Ezker-eskuinez palmondo bana ditu: itzalean duzu zain, esaldiz josita... Energia positiboak irte ten dizu, esaldi bakoitza irakurtzean. Guztien gaintetik, fusibleak ere erre egingo dizkizu batek: "Ez nazala ezerk, zu gandik urrundu". Juramentu hori bankuak berak egin zion parkeari, San Joan gauetz, ilargitan, zoli-zoli; eta, gero, bihotz gazte batek kopiatu, akats ortografiko eta guzti.

Jexux Eizagirre Portillo

IRAGARKI MERKEAK

Hernanin (Tilos-etan) Duplex-a salgai estrenatzeko (eraikuntza berria). 130m², 3 logela, 2 komun, sukaldea (osagai guztiekin) eta igogailua. 442.000€. Deitu: 656 316 031.
Pixua salgai Lizeaga kalean. 3 gela, sala, sukaldea eta komuna. Deitu: 670 553 703.
Etxeko lanak egingo nituzke, baita **haurrak zaindu** edota **adineko pertsonak zaindu**. Deitu: 653 73 36 20 / 943 33 43 01
Erreferentziadun emakumeak pertsona helduak zaindu edo/eta etxeko lanak egingo nituzke (egunez/gauetz). Deitu: 664 336 906.
Pisua salgai Karabalen. 60m², 2 logela, sala, sukaldea eta komuna. Kalefazioa badu. Berritua. Deitu: 627 403 119.
Pianoa salgai. Yamaha U1F modeloa, bigarren eskukoak. Ongi zaindua. 2.500 euro. Deitu: 629 763 041.

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.
Yolanda estetika zentrua. Fotodepilazio berria, hilaibeteko eskaintza: %20 aren deskontua 1. sesioan. "Fotorejuvenecimiento", Dieta personalizatuak, zure pisua kontrolatzen dugu. Plataforma bibratzailea. Atzietan 2, behe. Tel. 943 55 32 78.
Argia zentrua. Balneoterapia-spa, masajea, akupuntura, diafreoterapia, kiropraxia, erreflejo ajustea eta berbebrala, kromoterapia, drenaje linfatikoa... .Antziola 39 (Mendi mendian, 2). 943 55 76 76
Alicia C.C. Modu pertsonalean eta profesionalean garapena lortzeko: Coaching, PNL, erlajazioak, Flores de Bach, hipnosia... Deitu: 943 33 28 94 / 653 267 146. (Agustindarren plaza, 4)
Inigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta berbebrala, reflexologia, auriculoterapia... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

JOCG ZIKUÑAKO AMA



Maila polita hartzen ari dira Hernaniko txirrindulari gazteak

Alebin mailan, hernaniko Caja Rural txirrindulari taldeak lan ederra egin zuen Zarautzen joan den asteburuan, eta astetik atera ari dira euren maila hobetzen. Honakoak dira protagonistak: Mikel Alvarez, Aitzol Ariztimuño, Aitor Balerdi, Beñat Clemente, Luis Galardi, Beñat Garmendia, Markel Olazabal, Xabat Pastor, Julen Zulaika. Entrenatzaileak: Jon Castelar eta Axel Trantxe. ||

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duen eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

ANTXON MANZIDOR PEREZ
(Viguia)

Ez agurrik, ez adiorik gero arte baizik

BERRIAK: HERNANIKO MERKATARI ETA OSTALARI ELKARTEA

Hernanin, 2010eko martxoaren 23an

IGANDE EGUERDITAN ERE IREKITA

IPARRAGIRRE
TOLARE SAGAROTEGIA

WWW.IPARRAGIRRE.COM
osiñaga auzoa 10. HERNANI 943 550328

KUBOEN BANAKETA GAUR, MARTXOAK 23

ZIKUÑAGA	PORTU	FLORIDA	ANTZIOLA	LIZEAGA	KAXKOA
18:00 - 20:00	18:00 - 20:00	18:00 - 20:00	18:00 - 20:00	18:00 - 20:00	16:00 - 20:00
Escola zaharra	Elizatxo ikastola	Gabriel Celaya ikastetxea	Haur eskola	Sandusterrri	Atez ateko bulegoa

Oharra: arazorik bazenu kuboa zure auzoan jasotzeko dagokizun egunean eta orduan, pasa zaitaz informazio bulegotik (Kardaberaz, 25 • Tel. 900 840 090).

BIHAR, MARTXOAK 24

KARABEL: auzo elkarte, 18:00 - 20:00
PORTU: Elizatxo ikastola, 18:00 - 20:00
ETXEBERRI: Florida 100, 18:00 - 20:00
MARELUTS: kiroldegiko frontoia, 18:00 - 20:00

hernani
osasuna atez ate

www.hernaniatezate.net